

Txostena
Informe

**Lehiaren Defentsarako Euskal
Auzitegia**

**Tribunal Vasco de Defensa de la
Competencia**

2005-2007



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas





AURKIBIDEA / ÍNDICE

I. SARRERA	5
I.1 Arautegia.....	5
I.2 Sorrera, osaera eta adskripzio organikoa.....	6
I.3 Helburuak.....	6
II. ONDORIOAK	7
II.1 Legezatasuna:.....	7
II.2 Jarduera ekonomiko-finantzarioa.....	8
II.3 Helburuen betetze maila.....	9
III. ATAL ARGIGARRIAK.....	10
III.1 Egitekoak.....	10
III.2 Langileen gastuak.....	11
III.3 Funtzionamendu gastuak.....	12
III.4 Helburuen betetze maila.....	13
I. INTRODUCCIÓN	19
I.1 Normativa.....	19
I.2 Creación, composición y adscripción orgánica	20
I.3 Objetivos	20
II. CONCLUSIONES.....	21
II.1 Legalidad.....	21
II.2 Actividad económico-financiera	22
II.3 Cumplimiento de objetivos	23



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. APARTADOS EXPLICATIVOS.....	24
III.1 Funciones	24
III.2 Gastos de Personal	25
III.3 Gastos de Funcionamiento.....	26
III.4 Cumplimiento de objetivos	27
ALEGAZIOAK	33
ALEGACIONES	37

Vitoria-Gasteiz, 2009ko abenduaren 3a
Vitoria-Gasteiz, a 3 de diciembre de 2009



I. SARRERA

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegi honi buruzko txosten hau (aurrerantzean LDEA) Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1988 Legeari jarraiki gauzatu da eta 2008ko Lanerako Planean barne hartua dago, Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak hala eskatuta. Izan ere, 2007ko abenduaren 27an Epaitegi honi LDEAren gaineko berariazko fiskalizazio txostena egiteko eskatu baitzion, ekonomia-finantza jarduera, legezkoetasuna eta egotzitako helburuak bete izana barne hartuko zituena, betiere, horretarako finkatutako legezko eremuaren baitan.

Lanaren mamia honako hau izan da:

- Erakundearen sorreran eta 2005, 2006 eta 2007ko ekitaldietako jarduera ekonomikoaren kudeaketan legezkoetasuna bete dela egiaztatzea.
- Aipatutako aldiari gauzatuak jarduera ekonomikoa ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioetara egokitzen dela egiaztatzea.
- Aztergai izan diren hiru ekitaldietan aurreikusitako helburuak bete direla egiaztatzea.

I.1 ARAUTEGIA

Lehiaren Defentsarako uztailaren 17ko 16/1989 Legea Estatuaren multzoan behar hainbateko eskumena dagoela bermatzeko eta herritarren interesen aurkako zeinahi erasotatik babesteko helburuarekin onetsi zen. Aipatutako legezko testuak Estatuari legezko testu berean barne hartutako eskumen eta egiteko guztien aribidea esleitzen zion.

Eusko Jaurlaritzak eta Kataluniako Generalitatearen Gobernuak inkonstituzionalitatea sustatzen zuen errekurso bana aurkeztu zuten eta horren ondorioz, 1999ko azaroaren 11ko Konstituzio Auzitegiaren epaiak inkonstituzional izendatu zuen Legearen hainbat artikulutan jasotzen zen “merkatu nazional osoan edo zati batean” klausula eta hainbat eskumen aitortu zizkien Autonomia Erkidegoei.

Konstituzio Auzitegiaren epaitzaren ondorioz, otsailaren 21eko 1/2002 Legea ebatzi zen, Lehiaren defentsarako gaitan Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen Eskumenak Koordinatzeari buruzkoa; lege honen helburua uztailaren 17ko 16/1989 Legean barne hartutako Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen eskumen exekutiboak zehaztu eta mugatzea da. Lege horrek Autonomia Erkideetan lehiaren defentsarako organoen sorrera aurreikusten du eta betekizun bakartzat ezartzen du Estatuan Lehiaren Defentsarako Auzitegiari egozten zaizkion egitekoak beteko dituztenak burujabetasunez, lanbide kualifikazioz eta ordenamendu juridikoarekiko menekotasunez arituko direla.

2007ko uztailaren Lehiaren Defentsarako uztailaren 3ko 15/2007 Legea eman zen argitara, 16/1989 Legea baliogabe uzten duena; lege honen berrikuntza nagusia da estatu mailan Gobernuaz besteko erakunde bakarra eta askea sortu duela, jada existitzen ziren Lehiaren Zerbitzua eta Auzitegia besarkatuko dituen.

15/2007 Legea argitaratu zen, besteak beste, erkidego ereduari hobeto egokitzearren, 2002ko abenduaren 16ko Kontseiluaren 1/2003 zk.ko Erregelamendua oinarri hartuta (EE), Europar Elkarteko Tratatuaren 81 eta 82 artikuluetan aurreikusitako lehiari buruzko arauen



ezarpenari buruzkoa eta Kontseiluaren 139/2004 zk.ko Erregelamendua (EE) aintzat hartuta, 2004ko urtarrilaren 20koa, enpresen arteko kontzentrazioen kontrolari buruzkoa eta, batik bat, lehiaren jokamolde murrizgarrien aurkako borrokaren modernizazioan oinarritua.

I.2 SORRERA, OSAERA ETA ADSKRIPZIO ORGANIKOA

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan (aurrerantzean EAE), apirilaren 12ko 81/2005 Dekretu bitartez (36/2008 Dekretu bidez aldarazitakoa), LDEA sortu zen eta egitekoak esleitu zitzaizkion Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari (aurrerantzean, LDEZ).

Honela, bada, 81/2005 Dekretuak erabateko autonomia hierarkiakoa eta funtzionala aitortzen dio eta EAEn esparruan lehiaren defentsarako egitekoak esleitzen dizkio. Organikoki, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Ekonomia, Aurrekontu eta Ekonomia Kontrolerako Sailburuordetzara atxikia dago, Sail honen egitura hierarkiakoaren atal izan gabe.

LDEAk egiteko erabakitzaileak garatzen ditu debekatutako jokamolde kasuetan; baita, lehiaren babeserako politikaren gaineko kontsulta, zaintza eta sustapen egitekoak ere. (ikus III.4 atal argigarria). LDEZi egotzitako egitekoen artean, ikerketa, izapide eta espedienteen jarraipen eta zaintza egitekoak daude barne hartuak.

LBEA otsailaren 21eko 29/2006 Dekretu bidez izendatutako hiru kidek osatzen dute, 2006ko martxoaren 1etik aurrerako ondorioekin eta sei urteko eperako. Hori dela eta abiarazi du bere egitekoa LBEA 2006an, horren inguruko jarduerarik, ez ekonomia daturik batere ez dagoela 2005ean.

LDEAren egoitza Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren bulegoetan dago eta honek ematen dizkio auzitegi horri funtzionamendurako beharrezko dituen baliabide pertsonal zein gauzazkoak, 81/2005 Dekretuaren 1.4 artikulua agintzen duenaren arabera.

I.3 HELBURUAK

LDEAk 2006-2007rako Estrategia eta Kudeaketa Plana garatu du eta Eusko Legebiltzarraren Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordearen aurrera ekarri 2006ko maiatzaren 24an. Plan horren betetze maila LDEAk 2006 eta 2007ko ekitaldietarako gauzatutako oroitidazkietan aztertu da. Planaren eta oroitidazkien edukia eta horien betetze maila II.3 azalpen atalean adierazi da, "Helburuen betetze maila".



II. ONDORIOAK

II.1 LEGEZKOTASUNA

Sorrera

1. 81/2005 Dekretu bitartez LDEAren sorrera Izaera Orokorreko Xedapenak Garatzeko Prozedurari buruzko 8/2003 Legean zehaztutako izaera orokorreko xedapenak mamitzeko prozedura errespetatuz gauzatu da, dagozkion legezko izapideak jarraitu dira eta erabilitako arauzko mailak ez du legezkotasunaren aldetik inongo eragozpenik; honela, bada, sortutako atalak 1/2002 Legearen eskakizunak betetzen ditu. Nolanahi dela ere, Lege bidez sortu izan balitz legebiltzarrean horren gaineko eztabaida bideratuko zukeen.
2. LDEAren sorrera 2006ko martxoaren 1ean gauzatu da, hau da, 81/2005 Dekretuaren Xedapen Gehigarri Lehenengoan aurreikusitakoarekiko 7 hilabete inguruko atzerapenez, zeinak hiru hilabete ezarri baitzituen behin Dekretua abian jarri ondoren, 2005eko maiatzaren 7an gauzatu zena.
3. LDEA eta LDEZk osatutako antolaketa eredu binakoa aukeratu izana, une hartan estatuko indarreko sistemari hobeto egokitzen zitzaiola esanez justifikatu zen, estatukoa aldatzen bazen, hau ere aldatzeko aukera aitortuz. Jada erakundea sortu zen unean bakarkako eredu ezartzea justifika lezaketen oinarriak ezarriak zeuden, erkidegoko ereduarekin lotuago, Lehiaren Defentsarako uztailaren 3ko 15/2007 Legea onestea ekarri zutenak, zeinak ordura arte estatu mailan bereizirik zeuden bi atalak besarkatzen dituen eredu bakarkakoa ezarri zuen.

Ez dirudi arrazoizko LDEAren sorrera Dekretua aldarazten duen 36/2008 Dekretua onetsi zenean, 15/2007 Legearen aginduetara egokitzeko, binakako sistemari eustea, estatuko eredu berriarekin bat ez datorrena.

Langileria

4. Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Lanpostuen Zerrendak LDEAko administrari lanpostua izendapen askeko sistemaren bidez zuzkitzea aurreikusten du. Aipatutako lanpostua behin-betiko zuzkitu aurretik, plaza ia 3 hilabetetan zehar deialdi publikorik bideratu gabe zerbitzu eginkizun bidez bete zen; honek Ogasun eta Herri Administrazio Sailburuaren 2006ko maiatzaren 30eko Agindua urratzen du, Euskal Herriko Administrazioan eta bere Erakunde Autonomoetan lanpostuak zerbitzu eginkizunen bidez betetzeko prozedura arautzen duena.
5. 2006ko apirilean gauzatutako 2006-2007ko Estrategia eta Kudeaketa Planak 2 teknikari eta 2 administrari kontratatzea aurreikusten du; ordea, 81/2005 Dekretuak agintzen du Ogasun eta Herri Administrazio Sailak emango dizkiola LDEAri beharrezko gerta dakizkion giza baliabideak, gaur egun egiaz gertatzen den egoera izaki.
6. Eusko Jaurlaritzaren 2007ko ekitaldiko aurrekontu plantilak 2 lanpostu barne hartzen ditu LDEAren zerbitzuan; administrariarena bata, eta goi mailako teknikariarena, bestea, Lanpostuen Zerrendan (LZ) Ogasun eta Herri Administrazioiko beste zerbitzu bateko



baliran barne hartu direnak; izan ere, 81/2005 Dekretuaren arabera Ogasun Saila baita giza baliabideak eman behar dituen.

Ondasun erosketa eta zerbitzuak

7. LDEAren konfigurazioa dela-eta, APKLTBn kontratu txikientzat finkatutako kopuruak gainditu dituzten gastu bakarrak bidai gastuak izan dira, 21,9 mila eurokoak 2006an eta 26,3 mila eurokoak 2007an, enpresa bati APKLTBn finkatutako prozedurak bete gabe esleitutakoak, publizitate eta lehia printzipioak urratuz.

Beste batzuk

8. Ez da Lehiaren Defentsarako Erregistroa sortu, 81/2005 Dekretuaren 16. artikuluan agindutakoa; bertan ofizioz erregistratuko dira LDEAk baimendutako akordio, erabaki, gomendio eta arribideak eta guztiz edo partzialki debekatutako izendatu dituen haiek.

II.2 JARDUERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

LDEAk ekonomia-aurrekontuko kudeaketa gaietan une oro Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Ekonomia, Aurrekontu eta Ekonomia Kontrolerako Sailburuordetzaren Zuzendaritzari dagozkien eskumen berberak ditu, 81/2005 Dren 1. artikuluari jarraiki.

“Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia” 29. Zerbitzuaren baitan eta Ogasun eta Herri Administrazio Saileko “Ekonomia eta Gastu Publikoa” 6111 Aurrekontu Programaren baitan erregistratutako gastuak 2005, 2006 eta 2007an, honako hauek dira:

	Mila euro			
	2005	2006	2007	Guztira
Langileen gastuak	-	168,4	240,8	409,2
Funtzionamendu gastuak	-	55,8	121,9	177,7
29 ZERBITZUA GUZTIRA	-	224,2	362,7	586,9
Langile Gastuak beste zerb. batz. ..	-	35,0	42,1	77,1
GUZTIRA	-	259,2	404,8	664,0

Gastu hauetan ez dira barne hartzen egiazko inbertsioak, izan ere, beharrezko ekipamendua erostea (ordenagailuak, inprimagailua, fotokopiagailua, altzariak, e.a.) Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak kudeatzen baitu eta berari egozten baitzaio aurrekontuan. Funtzionamendu gastuetan ere ez dira Zerbitzu Zuzendaritzak egindako izaera orokorreko gastuak barne hartu. LDEAri esleitu edo ematen zaizkion ondasun hauen erosketa eta da gainerako erosketetatik bereizi Saileko gainerako zuzendaritzetatik eta honenbestez, txosten honetan ez da fiskalizazio-gai izan.

Sarrereren atalari dagokionez azpimarratu behar dugu LDEAri aztertutako aldian ez zaiola kontzeptu honen izenean inongo diru zenbatekorik aitortu. Honi dagokionez, 2007ko



abenduaren 31n urte horretan izapidetutako bi zehapen espedienteak ebatzi dira eta “Helburuak betetzea” II.3 azalpen atalean zehaztu den moduan 2. Helburuari dagokiola, horietako espediente bat soilik ebatzi zen zehapen ekonomikoa jarrita. Nolanahi dela ere, eta aipatutako zehapena jaso zuen elkarteak errekurritzea erabaki zuenez gero, txosten hau idatzi dugun datan indarrean da ezarritako zehapenaren zuhurtziazko indargabetzea.

II.3 HELBURUEN BETETZE MAILA

Estrategia eta Kudeaketa Planak erreferentziazko estrategia esparrua ezartzen du, balore eta helburu estrategikoak dituen:

- Estrategia eta Kudeaketa Planaren baloreen baitan, LDEAk erkidegoko administrazioarekiko bere jarduera orotan eta eskumenen garapenean duen burujabetasuna barne hartzen da. Burujabetasun hau LDEAko 3 kideen izendapen eta araubidera eta LDEAko finkatutako antolamendura mugatzen da, ez baita Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura hierarkiakoaren atal. Nolanahi den ere, ez du nortasun juridiko propiorik eta honenbestez, ez du burujabetasunik giza eta gauzazko baliabide eta ekonomia-aurrekontuzko kudeaketari dagokionez.
- 2006 eta 2007ko ekitaldietarako helburu estrategikoei dagokienez, horiek kudeaketazko 7 helburu orokorretan zehazten dira. Horietako seitan ez dira ez adierazleak zehazten, ez eta ebaluazio metodoak ere. Planak gauzatu beharreko hainbat jarduera jasotzen ditu, orokorrean gauzatu direnak, honako salbuespen hauekin:
 - 2 teknikari eta bi administrari kontratatzea aurreikusi zen eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailak administrari bat soilik kontratatu du.
 - LDEAren eragiketa prozesuen definizio eza. Nahiz LDEAren osokoak 2007an Barne Araubidearen Erregelamendua onetsi zuen, bere esku-hartzeen jokaera esparru izango dena, ez du Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren titularrak onetsi eta honenbestez, ez da EHAAan argitara eman. Erregelamendu hau 15/2007 Legearen edukari egokituko zaio. Erregelamendua Osokoak mamitu behar izatea 81/2005 Dekretuaren 6.b artikulua agintzen du. Berebat, ez da prozeduren eskuliburua mamitu.
 - Lehiaren defentsaren gaineko kontsultei erantzun emateko jarraitu beharreko inongo prozedurarik ez da ezarri.



III. ATAL ARGIGARRIAK

III.1 EGITEKOAK

LDEAri bere jarduera-esparruaren baitan 1/2002 Legeak zehazten dituen eskumenak dagozkio, lehiaren defentsarako gaietan Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen arteko eskumenak koordinatzen dituena; eskumen horiek aurreikusiak daude bai uztailaren 17ko 16/1989 Lege zaharrean, bai uztailaren 3ko 15/2007 Lege berrian ere, biak ere Lehiaren Defentsari buruzkoa.

Atal honen egitekoa enpresen arteko lehia askea zaindu eta babestea da eta hiritarrak gorde hori eragotzi, faltsutu edo mugatu dezaketen eragiketa horietatik.

LDEAk honako egiteko hauek garatuko ditu:

- Egiteko erabakigarria: Isun zigortzaileak eta behartzeak ezarriz, intimizazioa eta kalte-ordaina emateko prozedurak bideratuz.
- Egiteko aholku-emailea: Lehiaren defentsarekin zerikusia duten gaietarako buruzko txostenak mamituz. Honi dagokionez, txostenak era honetakoak izan daitezke:
 1. Merkataritza gune handiak ezarri, handiagotu eta aldatzeko lizentzietarako buruzko txostenak, nahitaezkoak eta ez lotesleak direnak.
 2. LDEAren beraren jarduerari buruzko txostenak, dela ofizioz edota Eusko Jaurlaritzak eskaturik eta sektore ekonomiko eta merkatuen gaineko ikerketak eta azterketak egitea, lehia askearen esparruan.
 3. Beste erakunde edo agente batzuek eskatuta egindako txostenak, arauzko izaerakoak edo merkatuei buruzko txostenak izan daitezkeela.
 4. Nahitaezko txostenak, ez lotesleak, Lehiaren Batzorde Nazionalak hala eskatuta, erkidegoaz gaineko esparru bat edo Estatuaren merkatu multzoa eragiten duten jokamoldeei buruzkoa, EAEn lurraldean eragin nabarmena dutenak.
 5. Sektore publikoan lehia sustatzeari buruzko txostenak, bai Kontratu Publikoetarako dagokienez, bai Laguntza Publikoetarako dagokienez ere.
- Egiteko babeslea. LBEZ merkatuen jarduerari buruzko ikerketak abiaraztera bultzatzea daitekeela. Berebat, Eusko Jaurlaritzari edo Foru Aldundietarako proposamenak bidali ahal izango zaizkie, kasu jakinetan esku hartu ahal izateko.
- Lehiaren politika sustatu, hedatu eta zabaltzeko egitekoa: Dituen baliabide guztiekin euskal gizartearen multzoan lehiaren kultura hedatzen eta alor honetan ezagutza eta gaitasunak garatzen lagunduz.



III.2 LANGILEEN GASTUAK

Apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuaren arabera LBEA 3 kidek osatzen dute, Eusko Jaurlaritzaren Dekretu bidez izendatuko direnak eta horretarako, proposamen bateratua eta arrazoitua aurkeztuko dute Ogasun eta Herri Administrazio Saileko eta Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko titularrek; izendapena sei urteko aldirako izango da eta behin bakarrik eta denbora tarte bererako berritu ahal izango da. Goi kargu izaera dute, zuzendari mailarekin. Legelariak, ekonomilariak edo antzeko diziplinetako profesionalak izango dira, ospe ezaguneko eta egiaztatutako, lanbide aribidean gutxienez 10 urteko antzinatasuna izango duena.

Hiru kideen izendapena otsailaren 21eko 29/2006 Dekretu bitartez egin da, ondorioak EHAAn argitaratu zen egunetik aurrera eraginez, 2006ko martxoaren 1etik aurrera, alegia.

Honez gain, aztergai izan dugun aldian, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak LDEAri administrari bat eta goi mailako teknikari bat esleitu dizkio. Horretarako, Ogasun eta Herri Administrazio Publiko Sailaren Lanpostuen Zerrenda (aurrerantzean LZ) aldarazi da ekainaren 13ko 122/2006 Dekretu eta ekainaren 12ko 97/2007 Dekretu bidez eta bi lanpostu berri sortu dira Ekonomia, Aurrekontu eta Ekonomia Kontrolerako Sailburuordetza” 20. Zerbitzu barruan, hurrenez hurren, “LDEAko Administrazioa” eta “Lehiaren Defentsarako Izapidearen Arduraduna” izenekoak.

Aipatutako lanpostuak betetzeko, administrariaren kasuan, 2006ko uztailaren 10etik urriaren 3ra bitarteko aldian zerbitzu eginkizuneko sistema iragankorra eta data horretatik aurrera izendapen askearen moldea erabili zen; teknikariaren kasuan, berriz, zerbitzu eginkizunaren sistema jarraitu zen 2007ko abenduaren 14tik aurrera.

LDEAn egitekoak gauzatu dituzten langileen gastuak honako hauek dira:

	Mila euro				
	2006	Gastua 2007	Guztira	Plantilla 12.31n 2006	2007
Goi karguak.....	160,6	204,7	365,3	3	3
Karrerako funtzionarioak	14,5	33,3	47,8	1	2
Gizarte Segurantzza	27,3	42,8	70,1	-	-
Itzarri.....	1,0	2,1	3,1	-	-
GUZTIRA	203,4	282,9	486,3	4	5

Pertsona hauek eragindako gastua horrela erregistratu da:

	Mila euro		
	2006	2007	GUZTIRA
29 Zerbitzua (LDEA) eta 6111 Programa (Ekonomia eta Gastu Publikoa)	168,4	240,8	409,2
20 Zerbitzua (Ekon. Sailburuord.) eta 6111 Progr. (Ekon. eta Gst. Publ.).....	31,6	42,1	73,7
30 Zerbitzua (Funtzio Publ. Sailburuord.) eta 12130 Programa (Funtzio Publ., Hautak.)	1,0	-	1,0
Industria Saila	2,4	-	2,4
GUZTIRA	203,4	282,9	486,3



LDEAko 3 kideei dagokienez, 2006ko apiriletik sortutako langile gastuak “LDEA” 29 zerbitzuan erregistratu dira, eta martxoko gastuak berriz, 20. zerbitzuari egotzi zaizkio. Honez gainera, 2006ko ekitaldian Itzarri Borondatezko Gizarte Aurrezaintzarako Erakundeari (GBAE) egindako ekarpenak “Funtzio Publikoaren Sailburuordetza” 30. zerbitzuari eta “Funtzio Publikoa, Langileen Hautaketa eta Prestakuntza” 12130 Programari egotzi zaizkie.

Bestalde, LDEAko administrariaren 2006ko uztailleko gastuak, 2,4 mila eurokoak, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari egotzi zaizkio.

29. Zerbitzuan aurrekontuetaratu eta exekutatutako gastuen alderaketa honakoa da:

	Mila euro			
	2006		2007	
	Aurrek.	Exek. O Fasea	Aurrek.	Exek. O Fasea
Goi kargudunen ordainsariak	184,4	146,9	192,8	204,7
Karrerako funtzionarioen ordainsariak	-	-	80,7	-
Gizarte Segurantza	33,0	21,5	47,8	34,7
Itzarri	-	-	-	1,4
GUZTIRA	217,4	168,4	321,3	240,8

Bi ekitaldietan, gastuen exekuzioa aurrekontu egindakoa baino txikiagoa dela ikusi dugu. Nolanahi dela ere, esan beharra dago alde horiek eragin dituzten arrazoiak ezberdinak direla; izan ere, 2006ko ekitaldian LDEAko hiru kideen gastua urte osorako aurrekontuetaratu zen eta apiriletik abendura bitartean soilik exekutatu zen; eta 2007an, gainera, bi plaza berrien gastua aurrekontuetaratu zen eta 29 Zerbitzu honetan LDEAko hiru kideei zegokiena soilik exekutatu zen.

III.3 FUNTZIONAMENDU GASTUAK

2006 eta 2007ko ekitaldietako Ogasun eta Herri Administrazio Saileko “LDEA” 29 Zerbitzuan honako funtzionamendu gastu hauek erregistratu ziren:

	Mila euro			
	2006		2007	
	Aurrek.	Exek. O Fasea	Aurrek.	Exek. O Fasea
Hornigaiak	-	0,1	6,0	-
Bestelako zerbitzuak	-	55,7	144,0	121,9
GUZTIRA	-	55,8	150,0	121,9



Gauzatu diren gastu nagusiak honako hauek dira:

	Mila euro		
	2006	2007	Guztira
Bidaiak.....	21,9	26,3	48,2
Dietak.....	18,2	19,7	37,9
Estrategia eta kudeaketa planteamenduaren diseinua	12,0	-	12,0
Barne erregelamenduaren proiektua egitea.....	-	11,8	11,8
Oroitidazkia diseinatu, ekoiztu eta egitea	-	11,7	11,7
2006ko Memoria mamitzeko laguntza eta 2006-2007 Kudeaketa Planaren jarraipena...	-	11,6	11,6
Ikastaroaren antolaketa.....	-	9,0	9,0
Komunikazio lanak	-	6,5	6,5
Iragarkiak komunikabideetan sartzea	-	3,6	3,6
Bestelako zerbitzu eta programak	3,7	21,7	25,4
GUZTIRA	55,8	121,9	177,7

III.4 HELBURUEN BETETZE MAILA

2006ko maiatzaren 24an LDEAk Eusko Legebiltzarraren Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeari Estrategia eta Kudeaketa Plana aurkeztu zion 2006 eta 2007ko ekitaldietarako, erreferentziazko estrategia esparrua ezartzen duena eta balio eta helburu estrategikoak dituen.

Esparru estrategikoa:

- Kalitatezko zerbitzu bihurtzea, merkatu eta lehia askearen funtzionamendu hobearen eta eraginkorragoaren alde eginez eta sistema sozioekonomikoa hiritargoaren mesedetan dinamizatuz.
- Lehiaren bultzadan erreferentzia gai izatea.
- Profesionaltasun eta burujabetasun eredu izatea, kasuak ahalik eta zorrotasun handienaz izapidetuz eta esleitutako baliabideak eraginkortasun handienaz baliatuz, legeriak bereizten dituen helburuak betetzeko egitekoan.

LDEAk kanpoan zein barnean balio horiek guztiak zaintzen dituelako aitormena nahi du.

- Gardentasuna: Gizarte multzoari sistematikoki helburuak, irizpideak eta jarduera metodoak eskualdatuz.
- Profesionaltasuna: LDEAren nortasuna sortuz, ongi egindako lana, zorrotza eta euskarri sendoko lan irizpideak abiaburu hartuta.
- Burujabetasuna: LDEA ez da EAEn Administrazioaren egitura hierarkikoaren atal, Administrazio Autonomikoarekiko burujabea da jarduera eta eskumenen garapen orotan eta une bakoitzean lehia gaietan indarreko legeriak agintzen duena soilik aintzat hartuta jardungo du.
- Eraginkortasuna: Legeriak zehaztutako helburuak lortuta eta garrantzizko diren kasuak ebatziz, lehia librea egiaz hobetzeko aurrera eginez.



- Konfidantza: Lehia sisteman esku hartzen duten agente nagusiekin harremanak, akordioak eta lotura bideak sendotzea bideratuko duen konfiantza ematea, bai esparru publikoan, bai pribatuan ere.

Helburu estrategikoak: LDEAren epe luzeko kudeaketaren oinarritzko erreferentzia dira:

- Euskal gizartean lehia askearen eta merkatuaren funtzionamendua egiaz hobetu, produktibitate osoari eta garapen ekonomikoari bultzada emateko balio izan dezan.
- Euskal gizartean lehiaren kultura zabaldu, agente guztiek denon onura ekarriko duen eragile modura har dezaten.
- Euskal eragile sozial, ekonomiko eta erakundeko multzoan lehiaren alorrean ezagutza eta gaitasunak garatzea.

Xede hauek 2006-2007 aldirako kudeaketaren helburuetan zehazten dira, eta horien betetze maila aztergai izan da LDEAk 2007ko ekainaren 18an eta 2008ko urriaren 20an, hurrenez hurren, onetsitako ekitaldi horien gaineko oroitidazkietan.

Ondotik, 2006-2007 aldian zehaztutako helburuak eta horiek betetzeko gauzatutako ekintzak laburbilduko ditugu.

1. Helburua: LDEAk funtzionamendu egokia eta efizientea izateko prozedurak eta oinarriak prestatu. Lau jarduera zerrendatuko ditugu:

- LDEAren eragiketa prozesuak definitzea. 2007ko ekainaren 18an LDEAk Barne Araubidearen Erregelamendu baten testua adostu zuen, bere ekintzen jardun eremu izango dena. Nolanahi dela ere, txosten hau idatzi dugun datan, ez dela indarrean sartu uler daiteke, ez baita EHAAn argitara eman, eta ez baitu Ogasun eta Herri Administrazio Sailburuak onetsi. Honez gain, Lehiaren Defentsarako uztailaren 3ko 15/2007 Lege berriaren edukari berregokitu beharko zaio.

Nahiz 2007ko Oroitidazkian esaten den urte horretan prozeduren eskuliburuaren diseinu, oinarri eta garapenaren gainean lan egin dela, behin amaitutakoan behin-betiko LDEAren eragiketa eredua osatuko duena, horren gainean ez dela ezertxo ere egin egiaztatu dugu.

- Giza baliabideen zuzkidura. Hasiera bateko aurreikuspenek epe horretan bi teknikari eta bi administrariren kontratazioa aurreikusten zuten. Nolanahi dela ere, administrari bat soilik kontratatu da 2006ko urrian eta teknikari bat 2007ko abenduan.
- LDEAren eta LDEZren arteko harremanen oinarria eta sistema finkatu. Honi dagokionez, aldizkako koordinazio bilerak egin dira bien artean.
- Urteko oroitidazkia egin, LDEAren jardueraren monitorizazio eta gizarteratzeko elementu izango dena. 2006 eta 2007ko ekitaldietako Jardueren Oroitidazkiak gauzatu dira.



2. Helburua: LDEAren jarduerari hasiera eman, sortze Dekretua aplikatuz eta zehapen, informazio, aholku-emaile eta errekursoak ebazteko bere egitekoen aribidean.

Hona hemen LDEAk 2006 eta 2007ko ekitaldietan jaulki dituen txostenak:

	2006	2007
Azalera handiak (58/2001 D.aren 7-3 art.).....	24	33
Merkatuak (81/2005 D.aren 6h art.).....	1	1
Aholku emailea (81/2005 D.aren 6h art.).....	-	1
Arau emailea (81/2005 D.aren 6h art. eta 15/2007 Legearen 25a art.).....	2	3
Lehiaren Batzorde Nazionala (1/2002 Legearen 5-4 art.).....	-	2
Jarduerazkoa (81/2005 D.aren 6c art.).....	-	1
Sekt. publ eta kontrat. lehia sustatzea (15/2007 Legearen 13-2 art.).....	-	2
GUZTIRA	27	43

LDEAk merkataritzako establezimendu handien gainean jaulkitako txostenak dira azpimarragarri, gai honetan Eusko Jaurlaritzaren Merkataritza Zuzendaritzatik jasotako jarduera eskeei dagokienez (ezarpen baimenak, merkataritza azalera handiak areagotu edo aldatzekoak)

Azkenik, azpimarratu behar dugu 2007ko urtean zehar LDEAk LDEZtik izapidetu eta ikertutako bi zehapen espediente jaso dituela, horietako bat administrazioaren kabuz, errepide bidezko salgaien garraio sektorea eragiten duten jokamoldeak direla-eta, eta bestea, salaketa bidez izapidetutakoa, Euskadiko langile autonomoen esparruari dagokiona. Bi zigor espedienteak 2007an ebatzi ziren eta honela, bada, lehenengoan 250.000 euroko zehapena jarri zitzaion enpresa elkarte bati, prentsa ohar bidez, euren elkartekideei Lehiaren Defentsarako Legearen 1. artikulua aurkako ziren prezioak igotzeko bi gomendio zuzentzeagatik; bigarrean, berriz, behin salaketa-gai ziren ekintzak aztertu ondoren, Lehiaren Defentsarako Legearen manuak urratzeko inongo aztarnarik ez zela sumatu ondorioztatu zen.

3. Helburua: Lehiaren defentsa gaietan, araudi berriaren prestalanetan parte hartzea, bai estatukoan, bai autonomikoan. 2007an zehar, araudia berrikusteko 3 prozesu abiarazi dira eta beste hainbeste txosten, oharpen eta proposamen bidez bideratu dira. Zehazki:

- Lehiaren Defentsarako Lege berriaren aurregitasmoari oharrak jartzea. LDEAren Osokoak 2007ko otsailaren 23an Lege egitasmoaren gaineko analisi eta proposamenen txostena egitea onetsi zuen.
- Lehiaren estatuko gainerako aginteekiko harremani eustea. Urtero, LDEAk lehiari buruzko hainbat jardunalditan esku hartzen du, horietako zenbaitetan txostengile modura esku hartuz.



4. Helburua: Erakunde eta giza eragileen kontsultei erantzun ematea.

- Lehiaren defentsarako kontsultei erantzun emateko prozedura prestatzea eta lehiaren defentsarako Europa eta nazioarteko legeria gaietan enpresa eta enpresa-elkarteei aholku ematea. Nahiz ez den jarraitu beharreko inongo prozedurarik finkatu, erakunde, enpresa edo elkarteren batek kontsultaren bat egin behar badu, zuzenean jartzen da harremanetan LDEAekin.

Helburu hau betetzeko, 2006 eta 2007ko oroitidazkiek honako erantzun hauek jaso dituzte Eusko Legebiltzarrak edo Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak egindako kontsulta edo informazio eskeen aurrean.

	Eusko Legebiltzarra	Industria, Merkataritza eta Turismo Saila
Honako hauen gaineko txosten arau- edo aholku-emaileak:		
Azalera handien Dekretu berriaren egitasmoa.....	X	X
Merkataritza jardueraren Lege berriaren aurreproiektua.....	-	X
Ekonomia sustap. laguntzeko lerroen Dekretu berriaren zirriborroa.....	-	X
Merkataritza marken arteko auzi batekin lotutako merkaturako txostena.....	X	-

5. Helburua: LDEA gizarteari ezagutarazi:

- Auzitegiaren jardueraren gaineko berri eman, Jardueren Urteko Oroitidazkia Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeari aurkeztuz. Honi dagokionez, LDEAk 2006ko oroitidazkia ez ezik, 2007koa ere aurkeztu du.
- LDEAren web orria prestatu, lehiaren sustapen eta defentsarako erreferente izan dadin. Jarduera hau ezin gauzatu izan da, Eusko Jaurlaritzak ez duelako LDEAk berezko web orria izateko baimenik eman. Egoera honen aurrean, Eusko Jaurlaritzaren web orriaren barruan atal modura dago jaso.
- Harremanak bideratu Eusko Legebiltzarreko talde politikoekin, giza eta enpresa-eragile nagusienekin eta Eusko Jaurlaritza eta Administrazio Publikoetako Sail ezberdinekin. Aurkezpen eta harreman ezberdinak bideratu dira, erakunde publiko zein pribatuekin: Eusko Legebiltzarra, Eusko Jaurlaritza, Aldundiak, Udalak, EHU, EITB, Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ofiziala, Euskal Enpresarien Konfederakundea, Estatu Batuetako Enbaxada, Deustuko Unibertsitatea eta kontsumitzaileen hainbat erakunderekin.
- Komunikazio kanpaina egitea. Lehiaren defentsaren gaineko jardunaldi eta ikastaroak besarkatzen dituzten hainbat jarduera gauzatu dira.

6. Helburua: Lehiaren Defentsarako nazioarteko foroetan esku hartzea:

- Lehiaren defentsarako foroetara joan eta esku hartu mundu mailan abian dauden praktika egokienak ikastearren. Bi urteotan zehar LDEAk, besteak beste, International Competition Network delakoaren Urteko Biltzarrean eta Ekonomia Lehiaren Iberoamerikako Foroan esku hartu du.



- Europako lehiaren defentsarako organo nagusiei bisita egin eta alderaketa egin, euskal kasuan erabil daitezkeen ikasgaiak ateratzeko. Atal honetan LDEAk Lehiaren Europako Egunean eta lehia gaietan eskarmentua duten taldeen jardunaldietan esku hartu duela aipatu.

7. Helburua: Lehia gaietan ezagutza sortu eta zabaldu. Euskal Herriko mundu akademiko eta profesionalak lehiaren defentsarako esparruarekiko interesa izatea bideratu eta sustatzea, ezagutzen ikasketa, sorrera eta aplikazio-diziplina modura.

- LDEAko kideen aldetik lehiarekin lotutako gaiei buruzko lantaldeak antolatzea. Urtero, LDEAk hizlari modura esku hartzen du estatuko hainbat tokitan antolatutako lehiari buruzko jardunaldi teknikoetan. Honez gainera, LDEAko kideek ere entzule edo partaide modura esku hartzen dute lehiaren defentsarako hainbat jardunalditan.
- Argitalpenak prestatu edo horietan esku hartzea. Honi dagokionez, LDEAk Ekonomiaz aldizkariak lehiaren defentsaren gainean ateratako berariazko ale bat koordinatzen esku hartu zuen eta LDEZren “Lehiaren defentsa Euskadin” izenburuko aurkezpen liburuxka mamitzen.





I. INTRODUCCIÓN

Este informe sobre el Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia (en adelante TVDC) se realiza conforme a la Ley 1/1988 del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/Herri Kontuen Euskal Epaitegia, y está incluido en el Plan de Trabajo para el ejercicio 2008, a petición de la Comisión de Economía, Hacienda y Presupuestos del Parlamento Vasco que, con fecha 27 de diciembre de 2007, solicitó a este Tribunal la realización de un informe de fiscalización específico del TVDC que comprendiera la actividad económico-financiera, la legalidad y el cumplimiento de los objetivos asignados, todo ello dentro del marco legal establecido al efecto.

El trabajo ha consistido en:

- La revisión del cumplimiento de la legalidad en su creación y en la gestión de la actividad económica de los ejercicios 2005, 2006 y 2007.
- La adecuación de la actividad económica del citado periodo a los principios contables que le son de aplicación.
- El cumplimiento de los objetivos previstos en los tres ejercicios revisados.

I.1 NORMATIVA

La Ley 16/1989, de 17 de julio, de Defensa de la Competencia se aprobó con la finalidad de garantizar la existencia de una competencia suficiente en el conjunto del Estado y protegerla contra todo ataque contrario al interés público. El citado texto legal atribuía al Estado el ejercicio de todas las competencias y funciones contenidas en el propio texto legal.

La sentencia del Tribunal Constitucional de 11 de noviembre de 1999, dictada en sendos recursos de inconstitucionalidad promovidos, respectivamente, por el Gobierno Vasco y el Ejecutivo de la Generalitat de Cataluña declaró la inconstitucionalidad de la cláusula “en todo o en parte del mercado nacional” que se contenía en diversos artículos de la Ley, reconociendo ciertas competencias a las Comunidades Autónomas.

Como consecuencia del fallo del Tribunal Constitucional, se dictó la Ley 1/2002, de 21 de febrero, de Coordinación de las Competencias del Estado y las Comunidades Autónomas en materia de Defensa de la Competencia, con el objeto de definir y delimitar las competencias ejecutivas del Estado y las Comunidades Autónomas contenidas en la Ley 16/1989, de 17 de julio. Dicha Ley prevé la creación de órganos de defensa de la competencia en las Comunidades Autónomas, estableciendo como único requisito, que los que ejerzan las funciones que en el Estado se atribuyan al Tribunal de Defensa de la Competencia, deberán actuar con independencia, cualificación profesional y sometimiento al ordenamiento jurídico.

En julio de 2007 se publica la Ley 15/2007, de 3 de julio de Defensa de la Competencia, que deroga la Ley 16/1989, cuya novedad principal estriba en la creación en el ámbito estatal de una institución única e independiente del Gobierno, la Comisión Nacional de la Competencia, que integrará a los existentes Servicio y Tribunal de la Competencia.



La publicación de la Ley 15/2007 se realiza entre otros motivos, para su mejor adaptación al modelo comunitario, en base al Reglamento (CE) núm. 1/2003 del Consejo, de 16 de diciembre de 2002, relativo a la aplicación de las normas sobre competencia previstas en los artículos 81 y 82 del Tratado de la Comunidad Europea y el Reglamento (CE) num. 139/2004 del Consejo, de 20 de enero de 2004, sobre el control de las concentraciones entre empresas y, sobre todo, en la modernización de la lucha contra las conductas restrictivas de la competencia.

I.2 CREACIÓN, COMPOSICIÓN Y ADSCRIPCIÓN ORGÁNICA

En el marco de la Comunidad Autónoma de Euskadi (en adelante CAE), mediante el Decreto 81/2005, de 12 de abril, (modificado por el Decreto 36/2008), se crea el TVDC y asigna funciones al Servicio Vasco de Defensa de la Competencia (en adelante SVDC).

El Decreto 81/2005 dota al TVDC de plena autonomía jerárquica y funcional y le atribuye las funciones de defensa de la competencia en el ámbito de la CAE. Orgánicamente está adscrito a la Viceconsejería de Economía, Presupuestos y Control Económico del Departamento de Hacienda y Administración Pública, sin formar parte de la estructura jerárquica de este Departamento.

El TVDC desarrolla funciones resolutorias en los casos de conductas prohibidas, así como funciones consultivas, de tutela y de promoción de la política de defensa de la competencia. (ver apartado explicativo III.4). Entre las funciones del SVDC se encuentran las de investigación, instrucción y seguimiento y vigilancia de los expedientes.

El TVDC está compuesto por tres miembros nombrados por Decreto 29/2006, de 21 de febrero, con efectos 1 de marzo de 2006 y por un periodo de seis años. Es por ello que el TVDC inicia su funcionamiento en 2006, no existiendo actividad ni datos económicos al respecto en 2005.

La sede del TVDC se encuentra en las dependencias del Departamento de Hacienda y Administración Pública del Gobierno Vasco, que presta a dicho tribunal los medios personales y materiales que sean precisos para su funcionamiento, según indica el art. 1.4 del Decreto 81/2005.

I.3 OBJETIVOS

El TVDC ha elaborado un Plan Estratégico y de Gestión 2006-2007 presentado ante la Comisión de Economía, Hacienda y Presupuestos del Parlamento Vasco el 24 de mayo de 2006. Su cumplimiento se analiza en las memorias efectuadas por el TVDC para los ejercicios 2006 y 2007. El contenido del plan y de las memorias y su cumplimiento se indica en el apartado explicativo II.3. “Cumplimiento de objetivos”.



II. CONCLUSIONES

II.1 LEGALIDAD

Creación

1. La creación del TVDC mediante el Decreto 81/2005 se ha realizado respetando el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general definido en la Ley 8/2003 de Procedimiento de Elaboración de Disposiciones de Carácter General, se han seguido los trámites legales correspondientes y el rango normativo utilizado no presenta ninguna objeción de legalidad, cumpliendo el órgano creado con las exigencias de la Ley 1/2002. No obstante la creación mediante Ley hubiera posibilitado su discusión parlamentaria.
2. La constitución del TVDC se ha producido el 1 de marzo de 2006, esto es, con un retraso de aproximadamente 7 meses con respecto a lo previsto en la Disposición Adicional Primera del Decreto 81/2005, que establecía tres meses desde la entrada en vigor del Decreto, la cual tuvo lugar el 7 de mayo de 2005.
3. La elección del modelo organizativo dual compuesto por TVDC y SVDC se justificó por su mejor adaptación al sistema estatal vigente en el momento, admitiendo la posibilidad de cambiarlo si el estatal cambiaba. En el momento de creación ya existían las bases que hubieran podido justificar la implantación de un modelo unitario, más acorde con el modelo comunitario, que originaron la aprobación de la Ley 15/2007, de 3 de julio de Defensa de la Competencia, que instauró un modelo unitario que integra los dos órganos separados hasta entonces en el ámbito estatal.
4. No parece razonable el hecho de que cuando se aprueba el Decreto 36/2008, de modificación del Decreto de creación del TVDC, para adaptarlo a los dictados de la Ley 15/2007, se opte por el mantenimiento del sistema dual, no coincidente con el nuevo modelo estatal.

Personal

5. La Relación de Puestos de Trabajo del Departamento de Hacienda y Administración Pública preve la dotación del puesto de administrativo del TVDC por el sistema de libre designación. Con anterioridad a la provisión definitiva del citado puesto, la plaza fue ocupada durante casi 3 meses mediante comisión de servicios que no fue objeto de convocatoria pública, incumpliendo la Orden de 30 de mayo de 2006, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, que regula el procedimiento para la provisión en comisión de servicio de puestos de trabajo de la Administración del País Vasco y de sus Organismos Autónomos.
6. El Plan Estratégico y de Gestión 2006-2007, realizado en abril de 2006, prevé la contratación de 2 técnicos y 2 administrativos cuando el Decreto 81/2005 determina que el Departamento de Hacienda y Administración Pública prestará al TVDC los medios personales que necesite, que es la situación que realmente se produce.



7. La plantilla presupuestaria del ejercicio 2007 del Gobierno Vasco incluye 2 plazas en el servicio correspondiente al TVDC, una de administrativo y la otra de técnico superior, que se han incluido en la Relación de Puestos de Trabajo (RPT) como pertenecientes a otro servicio del Departamento de Hacienda y Administración Pública, que es según el Decreto 81/2005, quien debe prestar los medios personales.

Contratación de bienes y servicios

8. Debido a la configuración del TVDC, los únicos gastos que han superado los importes establecidos en el TRLCAP para los contratos menores han sido los gastos de viajes por 21,9 miles de euros en 2006 y 26,3 miles de euros en 2007, adjudicados a una empresa sin seguir los procedimientos establecidos en el TRLCAP, incumpliendo los principios de publicidad y concurrencia.

Otros

9. No se ha creado el Registro de Defensa de la Competencia, establecido en el art. 16 del Decreto 81/2005, en el que se inscribirán de oficio los acuerdos, decisiones, recomendaciones y prácticas que haya autorizado el TVDC y los que haya declarado total o parcialmente prohibidos.

II.2 ACTIVIDAD ECONÓMICO-FINANCIERA

El TVDC tiene, en materia de gestión económico-presupuestaria, las mismas competencias que correspondan en cada momento a las Direcciones de la Viceconsejería de Economía, Presupuestos y Control Económico del Departamento de Hacienda y Administración Pública, de acuerdo al art. 1 del D 81/2005.

Los gastos registrados dentro del Servicio 29 “Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia” y del Programa Presupuestario 6111 “Economía y Gasto Público” del Departamento de Hacienda y Administración Pública, en los años 2005, 2006 y 2007, son:

	Miles-euros			
	2005	2006	2007	Total
Gastos de Personal	-	168,4	240,8	409,2
Gastos de Funcionamiento	-	55,8	121,9	177,7
TOTAL SERVICIO 29	-	224,2	362,7	586,9
Gastos Personal en otros servicios..	-	35,0	42,1	77,1
TOTAL	-	259,2	404,8	664,0

En estos gastos no se incluyen las inversiones reales, ya que la adquisición del equipamiento necesario (ordenadores, impresora, fotocopiadora, mobiliario, etc.) es gestionada e imputada presupuestariamente a la Dirección de Servicios del Departamento de Hacienda y Administración Pública. Tampoco se incluyen en los gastos de



funcionamiento aquellos de carácter general efectuados por la Dirección de Servicios. La adquisición de estos bienes que se asignan o prestan al TVDC no está individualizada del resto de adquisiciones para las demás direcciones del Departamento por lo que no ha sido objeto de fiscalización en este informe.

En lo referente al apartado de ingresos debemos destacar que el TVDC, en el periodo analizado, no tiene reconocido importe alguno por este concepto. A este respecto, aunque a 31 de diciembre de 2007 se encuentran resueltos los dos expedientes sancionadores tramitados durante este año, y como se detalla en el apartado explicativo II.3 “Cumplimiento de objetivos” al comentar el Objetivo 2, únicamente uno de dichos expedientes se resolvió con la imposición de una sanción económica. Sin embargo, y debido a que la asociación sobre la que recaía la mencionada sanción decidió recurrir, a la fecha de realización de este informe continúa vigente la suspensión cautelar de la sanción impuesta.

II.3 CUMPLIMIENTO DE OBJETIVOS

El Plan Estratégico y de Gestión establece un marco estratégico de referencia, con unos valores y unos objetivos estratégicos:

- Dentro de los valores del Plan Estratégico y de Gestión se incluye la independencia del TVDC con respecto a la administración autonómica en todas sus actuaciones y desarrollo de sus competencias. Esta independencia se limita al nombramiento y régimen de los 3 miembros del TVDC y a la organización establecida para el TVDC, al no formar parte de la estructura jerárquica del Departamento de Hacienda y Administración Pública. No obstante, no tiene personalidad jurídica propia, y por tanto carece de independencia en cuanto a medios materiales y personales y gestión económico- presupuestaria.
